Euskadik 2021ean izan du eskola uzte goiztiarraren zifrarik baxuena: 4,8 %

Urtarrilaren 24an **Hezkuntzaren Nazioarteko Eguna** ospatzen da. Aurtengo leloa "Pertsonengan inbertitzea, hezkuntza lehenestea" da. Kalitatezko hezkuntza Garapen Jasangarrirako 17 helburuetako bat da.

Eskola uzte goiztiarrak hauxe adierazten du: gehienez ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) gainditu eta ikasketa edo prestakuntza gehiago jaso ez duten 18 eta 24 urte bitarteko gazteen ehunekoa. Euskadin eskola uzte goiztiarra % 4,8 izan da 2021ean (% 4,9 emakumeen artean eta % 4,7 gizonen artean). Portzentaje orokor hori 2010tik 2021era doan seriearen baxuena izan da, nahiz eta emakumeen artean pixka bat igo den 2018-2020 aldiarekiko.

Euskadiko 18 eta 24 urte bitarteko biztanleriaren eskola uzte goiztiarraren tasaren bilakaera, sexuaren arabera (%)




| | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 13,1 | 13,8 | 12,4 | 9,9 | 9,4 | 9,7 | 7,9 | 7,0 | 6,9 | 6,7 | 6,5 | 4,8 |
| Gizonak | 13,7 | 14,2 | 13,0 | 12,4 | 11,8 | 11,9 | 10,7 | 8,5 | 9,4 | 9,1 | 8,5 | 4,7 |
| Emakumeak | 12,6 | 13,4 | 11,8 | 7,3 | 7,0 | 7,4 | 5,0 | 5,5 | 4,5 | 4,3 | 4,3 | 4,9 |

*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustaten datuak oinarri hartuta*

2021eko datu horiek (erabilgarri dauden azken datuak) Europar Batasunean jasotakoekin konparatuz gero, ikus dezakegu Euskadikoa Europako batez bestekoaren azpitik dagoela (%9,7 da EBko batez bestekoa) eta, Espainiako datuarekin alderatuz gero, aldea are handiagoa da (Espainian % 13,3 baita).

EB27ko 18 eta 24 urte bitarteko biztanleriaren eskola uzte goiztiarraren tasa 2021ean (%)




Datu horiek eta beraien bilakaera, bai eta sexuaren araberako banaketa ere, Gazteen Euskal Behatokiak bere webgunean eskaintzen dituen estatistiketan kontsulta daitezke, “***Hezkuntza***” izeneko atalean, hain zuzen ere.